

**2022KO MARTIAREN 30EKO KONTROLERAKO
BATZAR NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
CONTROL DE FECHA 30 DE MARZO DE 2022
(TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Europako funtsen betearazpenaren gaineko kontrola eta jarraipena.”	4
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea	4
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	9
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	10
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren eta hirugarren puntuak irakurri dauz: “Egungo egoera ekonomikoaren aurrean Aldundiak hartuko dituen neurriak.” eta “Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerreak Bizkaiko herritarrei eta produkzino-sektoreari eragindako ondorioak arintzeko abian jarri beharreko neurriak.”	12
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	15
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	18
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	23
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	24
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	25
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Adineko egoitzetako Bizikidetz Unitateak.”.....	28
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	28
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	31
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	34
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	35

- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Bizi dogun egoera ekonomikoa arintzeko Bizkaian hartu beharreko neurriak.” 37
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 37
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea 38
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 38
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea 39
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Metro Bilbaoren zerbitzuen maiztasuna murriztea.” 40
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea 40
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea 41
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea 41
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea 42
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Gorabideren Sopuertako egoitzako egoiliar batzuen lekualdatzea.” 43
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea 43
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 44
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea 45
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 45
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Eskola Kirolerako haurren ongizate eta babes plana.” 46
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea 46
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea 47
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea 48
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea 49

- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “EAEko Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako zehapenen eraginkortasuna eta egokitasuna.”	50
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	50
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	51
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea	52
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	53
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Bizkaibuseko autobusen mantentzea eta fidagarritasuna.”	53
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	54
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea	54
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	55
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea	56
- Batzarra amaitu da.....	57

2022ko martiaren 30eko batzarra
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 30 de marzo
de 2022 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores. Bienvenidos/as a esta Sesión Plenaria. Señor Diputado General, señoras y señores diputadas/os, estimadas y estimadas junteras/os, y a todas las personas que van a seguir esta sesión vía streaming, lo dicho, buenos días y gracias por estar hoy también con nosotros/as. Para comenzar con el Orden del Día, el primer punto es del siguiente tenor literal.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**
jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000445](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo
(GM/TB-PPB)

Asunto: Control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000445](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (83A)

Expediente: ([11/B/18/0003233](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000445SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo
(GM/TB-PPB)

Gaia: Europako funtsen betearazpenaren gaineko kontrola eta jarraipena

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000445SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (83A)

Espedientea: ([11/B/18/0003233](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Next Generation funtsak. Duda barik, azken aldian gehien aitatu dan kontzeptuetako bat da. Dakizuenez, 2020ko bagilean, Kontseilu Europarrak ezohiko suspertze-tresna hori adostu eta 750.000 milioi eurogaz hornidu eban Estadu kide guztiei bideratzeko.

Ondorio bikotxagaz sortu ziran: pandemiaren ondoren Europako ekonomiak suspertzeko eta, batez be, gure ekonomien egiturazko eraldaketarako. Espainiaren kasuan, Europak 140.000 milioi euro baino gehiago bideratuko dauz 2021etik

2026ra. Horreetatik, 70.000 milioi itzuli behar bako laguntzak izango dira, 2021 eta 2023 bitartera emongo diranak.

Zenbateko handiak dira, bai, baina batzuetan, bizitzan jazoten dan lez, ez deusagu erreparau behar gastauko dogun zenbatekoari bakarrik, ezpada zelan gastauko dogun, zein proiektutan, eta proiektu horreek aukeratu diran ereari be arretaz begiratu behar deusagu.

Eta horri jagokonez, Rementeria jauna, zure gobernuak badauka zer hobetu. Hasiara-hasieratik, suspertze-planak partaidetza-sistema baten bidez idatziko ziralakoan egoan Europako legegilea, partaidetza-sistema horretan interes-talde desbardinek euren kolektiboen interesen alde jokatu egien. Hori ez da horrelan izan. Foru Gobernuak ez dau garatu partaidetza hori bideratzeko mekanismo egokirik. Izan be, Suspertze Planaren diseinuan ez dabe parte-hartze aktiborik izan ez gizarte zibilak, ez sektore pribaduak, ez administrazino publikoek, ez toki-erakundeek.

Gure ustez, Europako funtsei etekinik handiena aterateko administrazinoen eta enpresen arteko lankidetzeta publiko-pribadua abiarazo behar zan, era horretan inbersino pribadua sustatu eta biderkatu ahal izateko eta euren zeregin ekonomiko eta soziala esponentzial bihurtzeko.

Enpresa txiki eta ertainen sektoreak be ez dau parte hartu funtsen plana egiteko prozesuan. Espainian enpresa txikiek eta ertainek enpleoaren bi heren sortzen dabe, eta BPGaren aberastasuna be proporzino berean.

Gure ustez, Foru Gobernuak ez da egon egoereak eskatzen dauen mailan, eta aukerea galdu da protagonismo politikoaren nahia alboratzeko eta Ganbera hau osotzen daben taldeakaz behintzat modu zabalean berba egiteko.

Eta zentzun horretan, Batzar Nagusietako talde politiko lez, eta bizkaitarren ordezkari lez, tristeaz esan behar dot, Rementeria jauna, proiektuak aukeratzeko orduan zure Foru Gobernuak oposizinoko talde bakar baten laguntzea be ez dauela izan, eta hori benetan penagarria da. Izan be, gaurko egunean, ez dakigu nogaz batzartu zaran edo nogaz probau dozun diruz lagundutako proiektu guztien egokitasuna. Itxura guztien arabera, ostera be, Gobernuak jaunok, zeuok prestau eta zeuok jan dozue. Eta autortu behar dot egundoko penea dala, seguru nago-eta orokorrean adostasun handia dagoana lortu beharreko helburuari jagokonez, baina, lehen esan deusudan lez, ezin gara ezelan be ados egon orain arte funts horreek kudeatu diran ereagaz.

Izan be, batez be proiektu estrategikoen kasuan gobernantza-eredua eta parte-hartzea eskatzen dozuez eten barik estadian, baina kudeaketa-sistema horri muzin egiten deusazue gure lurralde barruko eremuaz ari garanean, arrabol parlamentarioa apliketan dozuenean, Diputaduen Kongresuan horretaz sarri kexu agertu zarien arren.

Zuzenketa bat egin behar da eta, horretarako, funtsak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatu beharko lirateke, eta Ganbera honetako talde guztien kontrolak eta jarraipena indartu. Foru Gobernuak osotzen dozuen bi alderdietatik harago, funtsen xedeari buruzko eztabaida bat edegi behar zan, eta eztabaida horretan talde politikoak, administrazino publiko guztiak eta eragile ekonomiko eta sozialak egon behar dira.

Orain dala urtebete, Rementeria jaunak Ganbera honetan bertan esan eban lantzen ari ziran proiektuak Aldundiak lehendik bultzatzen eban bide beretik joiazala, baina, gure ustez, egundoko hutsuneak dagoz. Lehenengoa eta garrantzitsuena, metroaren 4. eta 5. lineak dira. Badakit zera esango deustazuena “ez kezkatu, Andrade jauna, 5. linea errealdadea izango da-eta, orain badagoalako finantzaketea”. Eta hori, Rementeria jauna,

zure kudeaketearen beste kontraesan handi bat da, hontsu, 5. linea bideraezina zala eta finantzaketa nahikorik ez egoala esaten eta baiezten zenduelako.

Horri jagokonez, bada, zer gura dozu esatea, ezta? Nire taldeak gurago izango eban lurraldearentzat hain garrantzitsua dan azpiegitura baten etorkizuna Europako funtsakaz zarratuta geratu izan balitz. Konpromiso hori askoz be fidagarriagoa izango zan EAJren hauteskunde-promesen zoriari itxita baino. Horren harira, promesa horreek hasi dira Ganbera honetan barruntetan, hauteskunde aurreko giro argian.

Beste lurralde batzuek Next Generation funtsetan mueta horretako azpiegiturak lehenestea erabagi dabe. Granada horreen adibide da, eta orain dala hainbat hilebeterik hona lurralde horrek badaki metroa handitzeko Europako funtsetatik 111 milioi euro erabilgarri daukazana. Era berean, Palma Mallorcakoa edo Sevilla izan geinkez berbabide, etorkizun hurbilean.

Zure gobernuaren kudeaketea gorabehera, nire taldearen ustez Europako funtsak Bizkaiko ekonomia kaskarra suspertzeko aukera bat izan leitekez. Baina, horretarako, kudeaketea aldatu behar da. Talde popularraren ustez, beharrezkoa da neurri barriak sartzea Europako funtsetara heltzen diran proiektuen hautaketea, kontrola eta betearazpenaren jarraipena partekatzeko.

Euki eizue argi-argi, gobernuko jaunok, nire taldea ez dagoana aurkeztu diran egitasmoen aurka, ezta hurrik be. Badakigu proiektu onak dirana, baina gure kritikea proiektu batzuk aukeratu izanaren errazoiari oinarritzen da, eta ez beste batzuk. Beste era batera esanda, zergaitik bai batzuk eta beste batzuk ez, Galdakaoko metroa, esaterako.

Egia esan, ez da aurkezpen-txartelik onena. Horregaitik uste dogu beharrezkoa dala norabidea aldatzea. Izan be, guztion adostasunagaz bakarrik bermatu ahal izango dogu Bizkaiaren arrakastea garai gatz honeetan.

Beraz, zera galdetzen deusut:

Ze neurri hartuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak Europako funtsak jasoten dabezan proiektuen kontrola eta jarraipena Bizkaiko Batzar Nagusiakaz partekatzeko?

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Junteros/as, señor Diputado General, buenos días a todos/as.

Covid pandemiaren larritasunak eragin ekonomiko eta sozial handia izan dau Europar Batasuneko herrialde guztietan. Aurrekari bako egoera horren aurrean, Kontseilu Europarrak asmo handiko Suspertze Plana adostu eban 2020ko garagarriean, eta Plan horrek bi oinarri ditu.

Alde batetik, hainbat urtetarako finantza-esparrua, 2021-2027 urteetarako, 1,1 bilioi euroko zuzkiduregaz. Eta, bestetik, Next Generation Suspertze,

Eraldaketa eta Erresilientziarako Europako Funtsa, 750.000 milioi euroko zuzkidureagaz, Estatu kideei dirulaguntzen eta kredituen artean banatuko diranak.

Horren arabera, Espainiak 150.000 milioi euro jasoko dauz, eta honelan banatuko dira: 80.000 milioi euro kreditutan eta 72.000 milioi euro dirulaguntzetan. Horreen bidez, estatuak bere Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatu ahal izango dau.

Euskadik, aldi berean, Euskadi Next Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Euskal Plana erango dau aurrera. Plan horretan alkarregaz parte hartu eta egin dabe bai Eusko Jaurlaritzek, bai hiru foru-aldundiek, bai uriburuetak hiru udalek be.

Estaduak dirulaguntzetan jasoko dauzan 72.000 milioi euro horreek bi tresnaren bidez bideratuko dira: bata, REACT EU funtsak, 12.436 milioi euroko zuzkidureagaz, eta, bigarrena, suspertzeko eta erresilientziarako mekanismoa, 60.000 milioi euroko zuzkidureagaz, eta kasu horretan proiektu eraldatzaileen inbersinoetarako eta deialdietarako izango dira.

Kasu horretan, proiektu horreen edo aitatu barri dodan mekanismo horretan sartuko diran proiektuen izapidetzea, hau da, lizitazioa, dakizuenz, 2023ko abenduaren 31ra arte egin beharko da, eta proiektu horreek betearazoteko epea 2026ra artekoa izango da.

Funts hori, dakizuenz, Estaduaren 36/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez araututa dago, administrazio publikoa modernizetako eta arintzeko eta Suspertze Plana gauzatzeko preminazko neurriak onartzen dauzana.

Tira, testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak igazko garagarrilean onartu eban garagarriaren 20ko 105/2021 Foru Dekretua, eta araudi horren helburua da edo zan, hain zuzen be, aldundiaren beraren antolaketeagaz bat datorren gobernantza-egitura bat ezartea, eta administrazioa modernizetako eta arintzeko neurri batzuk hartzea, Europako suspertze-tresnatik datozen Europako funtsak hobeto kudeatu eta gauzatu daitezkan.

El principal objetivo del Decreto Foral aprobado por esta Diputación el año pasado era analizar las medidas para gestionar con eficacia los fondos establecidos en el Real Decreto-ley 36/2020, y, en la medida de lo posible, adecuar a la propia estructura de la Diputación Foral de Bizkaia para que la gestión de dichos fondos fuera ágil y eficaz. Para decirlo más concretamente, les mencionaré 4 características relativas a esta gobernanza.

En primer lugar, hay que señalar que se le asigna a la Dirección de Atracción a Bizkaia del Gabinete del Diputado General realizar la coordinación y el seguimiento de los proyectos financiados con los fondos europeos Next Generation, como órgano directivo que cuenta con las competencias en materia de fondos europeos y también como elemento transversal de los departamentos de esta Diputación. Corresponde a esta Dirección identificar las opciones de financiación provenientes de los fondos Next Generation, así como colaborar en la presentación de los proyectos para obtener dichos fondos.

En segundo lugar, hay que señalar que se le asigna a esa Dirección, a la Dirección de Atracción a Bizkaia, la Comisión de Coordinación de los fondos Next Generation. La Diputación ha formado una comisión de coordinación para llevar a cabo una adecuada gestión de dichos fondos, con el fin de fomentar la propia Dirección de Atracción a Bizkaia y colaborar con ella.

En tercer lugar. La Dirección General de Finanzas, Presupuestos y Patrimonio del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia asumirá las funciones y competencias de intervención, fiscalización, control y auditoría que le correspondan en su ámbito de actuación y que le sean atribuidas por la autoridad para el control de los mecanismos de recuperación y resiliencia.

Este Decreto Foral también recoge algunas previsiones en materia de personas, en materia de personal, de recursos humanos, como la posibilidad de crear unidades administrativas provisionales con mecanismos ágiles de cobertura para gestionar eficazmente los fondos cuando estos lleguen.

En cuarto y último lugar. En cuanto a la dación de cuentas a las Juntas Generales de Bizkaia, y en relación con las medidas que se van a adoptar para compartir con las Juntas Generales el control y seguimiento de dichos fondos que se plantean específicamente en esta pregunta, cabe señalar que, según el Decreto Foral, al menos una vez al año las Juntas Generales serán informadas sobre el estado de la programación o ejecución de los proyectos del Sector Público Foral registrados y regulados en el Real Decreto-ley 36/2020.

Hau da, foru-araudiak berak Batzar Nagusiei gitxienez urtean behin kontuen barri emongo jakela aurreikusi eta ezarten dau. Baina kontrol horrek guztiak ez leuke askotarako balioko proiektu barik.

Proiektuetara joanda, Next funts horreekaz finantzau ahal izan daitezkan daukaguzan proiektuetara. Aurreko batzuetan Ahaldun Nagusiak berak tribuna honetan adierazo dauen moduan, Legegintzaldi Plana osotzen daben proiektuak dira. Halanda ze, ez dogu ezer asmatu behar izan. Ez dago Next funtsetara aurkezteko beste planik, agintaldi-plana osotzen dabenetatik aparte. Beraz, Bizkaiarentzat garrantzizkoak diran proiektuak dira funts horreekaz finantzau gura doguzanak, Bizkaia aldatuko daben proiektu eraldatzaileak, eta, horrezaz gainera, Europarako lehentasunezko ildoakaz bat datozanak.

Proiektu horreek partekatzeke eta bai Batzar Nagusiek eta bai herritarrek ezagutu dagiezan, gobernu honek gardenak izan behar dau eurokaz, bai eta euren finantzaketeagaz be, esan deusudan lez, agintaldi-planeko proiektuak dira-eta. Horregaitik, Batzar Nagusiek egingo daben eta, orokorrean, gizarteak egingo dauen jarraipen eta kontrola ez da Europako funtsakaz finantzetan danaren eremura bakarrik mugatzen. Next funtsakaz finantzetan diran proiektuen kasuan, proiektua kudeatzen dauen sail bakotxaren kudeaketa arruntaren bidez kontrolau ahal izango dabez Batzar Nagusiek, eta, gobernu honi egingo jakon ohiko kontrol horrezaz gainera, gobernu honek kontuak emoteke mekanismo gehigarri bat ezarri dau bere barruko erregulazinoan gitxienez urtean behin egiteko, Next funts horreen kargura finantzaketea jasoten daben proiektuen kasuan.

Por ello, quisiera dejar muy claro que la Diputación Foral siempre está dispuesta a informar de la evolución de todos los proyectos que conforman el Plan de Legislatura y también de los fondos europeos que se reciben para financiarlos.

Pero vuelvo a repetir. Más allá de estos mecanismos de dación de cuentas y del desarrollo de la transparencia, sin restar su importancia democrática, lo verdaderamente importante es contar con proyectos transformadores alineados con los objetivos prioritarios para Europa, y que impulsarán las cuatro transiciones que tiene Bizkaia. ¿Cuáles son estas cuatro transiciones, y algunos de los proyectos que se incluirían en ellas?

Por ejemplo, la transformación del sistema sociosanitario, uno de los mayores retos a los que se enfrenta Europa tras la pandemia. En este ámbito estamos

llebando a cabo proyectos como la extensión de la red de centros EtxeTIC a todas las comarcas del territorio; el impulso de los centros sociosanitarios de ámbito comarcal de referencia; el apoyo a proyectos como el centro intergeneracional de Getxo... Solo para los tres proyectos citados se ha aprobado un total de 46.690 millones de financiación Next Generation. Es decir, el 100% de la inversión total prevista para estos proyectos, a lo que hay que sumar otros 6,6 millones aprobados.

La segunda, la transformación digital. Otro de los grandes retos de Europa y de todos los países en general. Queremos modernizar y digitalizar el tejido productivo de Bizkaia, el comercio local y la propia administración pública. Para ello, contamos con proyectos como la banda ancha, la apuesta por la inteligencia artificial y las infraestructuras que la hacen posible o impulsar internacionalmente el ecosistema nacional de emprendimiento. Y en eso tendrá un papel fundamental la Economía Plateada.

Son proyectos muy importantes y, como saben, algunos de ellos están ya en marcha. Uno, el Centro Internacional de Emprendimiento e Innovación, el despliegue de la banda ancha en el territorio. Proyectos que, de momento, carecen de fondos Next pero que se ajustan a las líneas estratégicas marcadas por Europa.

La tercera transición, la necesaria transición energética. La situación actual exige más que nunca otro modelo energético para Europa. Bizkaia, en este sentido, apostó por el hidrógeno y Europa se reafirma en esta apuesta. Bizkaia apostó por las redes inteligentes, y también en este ámbito Europa se reafirma en esa apuesta. EIC, Energy Intelligence Center.

Por último, en este caso estamos perfectamente alineados con Europa en la cuarta transición, en la transición hacia una movilidad sostenible. En este ámbito tenemos proyectos de gran calado, como la ampliación de la red del metro a Galdakao y al hospital de Usansolo, la mejora con Feve en Encartaciones y la conexión con las redes del metro, la construcción de bidegorris interurbanos o vías verdes.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela. Y en el turno de réplicas, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Eskerrik asko azalpenakaitik, diputadu andrea, baina azalpen horreek nire agerraldiaren hasieran esan deusudana berresten deustie, ezta? Foru Gobernu honek ez dau mekanismo egokirik garatu ez gizarte zibilaren, ez sektore pribaduaren, ez administrazio publikoen parte-hartzea bideratzeko. Izan be, ez dira kontuan hartu ezta aintzat hartu Europako funtsen eskaerea Bruselara bialdu eta hautatu aurreko inongo jardueratan.

Koordinazio Batzordearen sorrera izan dozu berbabide. Bertan, jakina, ez gagoz Ganbera honetako talde bakar bat be, nik dakidala (gurea behintzat ez dago). Bertan, lan-talde arin eta eraginkor bat sortu dozue edo sortu dozuela dinozue Europara bialtzeko aukeratu dozuezan proiektuak banatzeko, aukeratzeko. Arin eta eraginkor berbak erabili dozuz, eta, jakina, arina eta eraginkorra bai, baina ez parte-hartzailea, eta mozino hau, itaun hau horretaz joian, hau da, Ganbera honetako taldeei zer-

nolako parte-hartzea emongo deuskuzun galdetzen geuntsun, ezta? Izan be, zuk baietz baino ez dozu adierazo, parte-hartzea egongo dala, urtean behin kontuak emongo deuskuzueza, funts horreek gauzatzearen barri emongo deuskuzuela. Baina, tira, Ganbera honetako taldeoi urtean behin kontuen barri emoteaz gainera, uste dogu proiektuak aukeratzeko erispideak partekatzen itxi izana be garrantzitsua zala, proiektuen hautaketan parte hartzen itxi izana eta, jakina, urtean behin kontuak emon gura dozuenez gain jarraipen ohikoagoa izaten itxi deiguzuela gura genduan. Izan be, gainerakoa Ganberearen baliabideak erabiltea da, egiten ari zariena bialdu deiguzuela eskatzea idatziz, eta guk lan egiten jarraitzea, guk eskatu ezik zuek guri ezer jakinarazo barik, ezta? Guk, barriro dinot, Europako funtsen kudeaketa zorrotza, eraldatzailea eta, batez be, parte-hartzailea gura dogu. Uste dogu funtsak, lehen esan dodan lez, modu zabalean gauzatu behar dirala, gastu publikoaren gardentasuna, osotasuna eta eraginkortasuna errespetauta, eta hori gobernu on guztiari eskatu behar jako.

Funtsak gauzatzeko politikea zure gobernuaren ardurea da, argi dago, ezta? Baina, ostera be esango dot, modu zabalean egin behar da. Izan be, betiko lez, etxe honetan ezagutzen dogun lez, foru-erakunde honen gardentasuna eta eraginkortasuna eta efizientzia benetan eskasak dira.

Nire ustez, Bizkaiko Legebiltzarrak guztion borondatea ordeztzen dau eta ezin jako uko egin eta marjinaltasunari eutsi, harrizko konbidadua balitz lez aukera honen aurrean, ezta? Aukera eta erantzukizun handia da, eta, nire ustez, ganbera honetako talde guztiok partekatu gurako geunke, bizkaitarron ordezkariak garan heinean.

Barriro dinot. Gardentasuna eskatzen ari gara. Hemen bilatzen ari garan gauza bakarra kudeaketa bat da, eta gure lurraldearen garapen ekonomikorako, susperraldi ekonomikorako funtsezko kudeaketa hori eraginkortasunaren bideetatik eta gardentasunaren bideetatik egin daitela, ez dira-eta opakotasunerako garaiak. Pandemiak eta gaur egun bizi dogun krisialdiak Bizkaiko gizarte- eta ekonomia-sareak aurrez aurre izan dauen erronkarik handienetako baten aurrean jarri gaitue, eta erronka hori adostasunagaz, akordioagaz eta alkarrizketeagaz baino ezin da gainditu. Gure ustez, une erabagigarri honeetan egoerak eskatzen dauen mailan egon behar gara, eta protagonismo politikoen guraria alde batera itxi behar da, eta berba egin behar da, Ganbera osotzen dogun taldeakaz gitxienez, eta gardenak izan behar gara, horixe da-eta Europar Batasunak berak taldeoi eskatzen deuskuna; izan be, talde horreen proposamenak ezagutu behar dira eta horrezaz gainera, jarduera-planari eta egikaritze-planari buruzko informazio zehatza jaso behar da, bai eta jarraipen- eta erantzun-mekanismoei buruzko informazioa be.

Diputadu andrea, barriro itantzen deusut:

Ze neurri hartuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak Europako funtsak jasoten dabezan proiektuen kontrola eta jarraipena Bizkaiko Batzar Nagusiak partekatzeko, zuk dinez lez, urtean behin egiten dozuenezaren kontrolaz gainera?

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tal y como manifestaba en mi primera intervención nuestro propósito y nuestro compromiso, y no podemos tener otro compromiso, es sacar adelante los proyectos de la legislatura, con o sin los fondos europeos, porque se trata de proyectos transformadores y porque creemos en ellos. Eran transformadores antes de los fondos y son transformadores ahora, con los fondos. Eso no quiere decir que renunciemos de los fondos europeos, y también estoy totalmente de acuerdo con usted, señor Andrade, en que tenemos que ser totalmente transparentes y rigurosos en la gestión de esos fondos.

Esan deusudan lez, Legegintzaldi Planeko proiektuak garatzen lanean jarraitzen dogu, eta proiektu eraldatzaileak dira. Funts horreez daborduko onartutako finantzaketearen adibide batzuk jartearren, honako honek aitatu gurako neuskizue: esaterako, EtxeTIC proiekturako lortutako finantzaketea (guztira 22.400.000 €); Getxoko Belaunaldien arteko Zentroa (13.260.000 €); erreferentziazko zentro soziosanitarioen eskualde mailako garapena (11.030.000 €); edo Gaztelugatxe helmuga turistiko, barrizaille eta jasangarri bihurtzeko estrategiarako lortu dan finantzaketea (1.900.000 €).

Guztira, orain arte 56.694.529 € lortu dira Next funts horreen finantzaketearen kargura. Esan deusudan lez, finantzaketa hori daborduko onartuta dago gure agintaldi-plana osotzen daben proiektuak finantzetako.

Barriro dinotsut, proiektuak betearazoteari jagokonez gardentasunagaz eta horreen finantzaketeagaz be daukagun konpromisoa berretsi gura deusut, ezin zan-eta beste era batera izan. Esan behar deusut Next funtsetara aurkeztutako proiektu horreez ez dirala proiektu desbardinak, lehen be esan dodan lez, eta, era berean, esan gura deusut proiektu horreez plan bateratu baten jasota dagozala, hau da, plan publiko baten, eta herri hau osotzen daben erakundeek onartu dabela, hau da, Eusko Jaurlaritzek, hiru aldundiek eta hiru uriburuek. Daborduko aurkeztuta dagoan plan publikoa da, eta, hain zuzen be, aurkezpen horren ondorioak, ikusten dozuenez, daborduko jaso doguz eta finantzaketearen bat be lortu dogu.

Esan deusudan lez, Batzar Nagusiek proiektu horreen betearazpenaren jarraipena egiteko, Ganbera honek eta berori osotzen daben taldeek ohiko kontrola egingo dabe, eta, horrezaz gainera, igaz onartu genduan foru-araudiak mekanismo espezifiko bat dauka, eta mekanismo horrek adierazoten dau, hain zuzen be, urtean behin egingo dala. Horrek ez dau esan gura sail sustatzaileek proiektu bakotxean dagozan aurrerapenen barri emon ezin dabenik.

Eta, amaitzeko, zure nahiagaz bat gatozala adierazoten deusugu, eta funts horreen kudeaketeak gardena izan behar dauela, eraginkorra izan behar dauela eta, hain zuzen be, sano zorrotza izan behar dauela. Eta horretarako, bada, nik uste dot Aldundiak baliabide guztiak daukazala hori egiteko eta horrelan egiteko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajueta.

A continuación, debatiremos de forma conjunta los puntos segundo y tercero del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**
jaunak: Gai-zerrendako bigarren eta hirugarren puntuen eztabaida bateratua:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000612](#))

Autor: Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

Asunto: Las medidas que adoptará la Diputación ante la actual situación económica.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000612](#))

Expediente: ([11/B/18/0003288](#))

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000620](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: Medidas a poner en marcha para paliar los efectos sobre la población y el sector productivo de Bizkaia provocados por la guerra entre Rusia y Ucrania.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000620](#))

Expediente: ([11/B/18/0003296](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000612SE](#))

Egilea: Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

Gaia: Egungo egoera ekonomikoaren aurrean Aldundiak hartuko dituen neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000612SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003288](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000620SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerreak Bizkaiko herritarrei eta produktino-sektoreari eragindako ondorioak arintzeko abian jarri beharreko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000620SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003296](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por tanto, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señora Presidenta. Buenos días, junteros/as, trabajadores/as.

En primer lugar, tras escuchar lo que hemos escuchado en las últimas semanas en diferentes parlamentos y medios de comunicación, quiero hablar muy claro en nombre de mi grupo.

Desde un principio, Euskal Herria Bildu ha dejado claro su posicionamiento en contra de la invasión rusa en Ucrania, pero parece que a algunos y algunas no les gusta o que no les conviene que esto sea así.

Por eso me voy a adelantar esta vez, y si alguien tiene la tentación, que lo borre del guion de hoy.

Euskal Herria Bildu se opone a la invasión imperialista que Rusia ha hecho en Ucrania. Y lo decimos con total contundencia.

Pero Euskal Herria Bildu también está en contra del envío de armas,

porque una escalada de armas no supondrá nada bueno, solo la muerte, la destrucción y la amenaza de un Estado que es una potencia nuclear. Somos partidarios/as de que los conflictos y las guerras se resuelvan mediante soluciones democráticas.

Y no apoyamos las actividades de la OTAN, como nuestro pueblo no apoyó su creación hace 36 años.

Y somos pacíficas/os, todavía hoy, porque proclamamos en voz alta que somos hijos e hijas de esta Gernika del 26 de abril de 1937, y creemos que es motivo suficiente.

Para terminar con esta pequeña introducción, queremos ser un pueblo de acogida, un territorio que acoja a todas las personas que huyen del hambre, de la persecución y de todas las guerras, incluidas las personas invisibles de esas guerras que han quedado en nada para muchos/as: sean personas libias, palestinas, subsaharianas o ucranianas.

Eta, gainera, gerra hori energia- eta hornidura-krisia sortzen ari da, eta krisi horren ondorioak Euskal Herriko eta Bizkaiko hainbat sektore jasaten ari dira.

Bizkaiko kontserba-sektorea astindu dau, Ukraina dalako ekilore-orioaren hornitzaile nagusia.

Gasolioaren prezioaren etenbako igoerearen ondorioz, arrantzaleak portuan atrakauta dagoz, arrantzara urten barik.

Garraiolaria greban dagoz, erregaien igoereagaz behar egitea ez jakelako errentagarri egiten.

Elektrizidadearen eta gasaren prezioen igoereak enpresa askoren jardurea geldiarazotea ekarri dau.

Eta zer esanik ez prezioen igoerea batez be Bizkaiko familia behartsuenetan sortzen ari dan eraginaz, elektrizidadearen, gasolioaren edo gasaren igoerari elikagaien prezioaren igoerea gehitu behar jako-eta. Azken datuek erakusten dabe batez beste %20ko igoerea izan dala horreetan.

En nuestra interpelación planteábamos al Diputado General Rementeria Maiz qué medidas tomarían para hacer frente a todo esto y qué impacto tendrá la situación actual en los proyectos previstos por la Diputación Foral para el año 2022, teniendo en cuenta el posible descenso de ingresos y el encarecimiento de las materias primas.

Y en la comparecencia de ayer en Vitoria con los dos diputados de los otros territorios ya pudimos ver cuál es la respuesta a nuestra interpelación.

Eta, lehenengo eta bat, gure ustez, hiru ahaldun nagusiek atzo egindako agerraldiak baiezteko balio deusku egungo krisia edo pandemiaren aurrekoa lako krisiek be ez dabela balio izan Foru Gobernu honen kudeaketa-eredua aldatzeko; ez da egon zuen gobernantza-ereduan inongo aldaketarik.

Continúan trabajando desde la unilateralidad.

Paradoxa bat da: Euzko Alderdi Jeltzaleak Madrilgo Gobernuko presidenteari bi urte daroatsaz jarrera bera arpegiratzen, eta hemen zuok gauza bera egiten

dozue. Gauza berbera: zuek bakarrik alkartzen zarie, zuek bakarrik adosten dozue eta zuek bakarrik egiten dozue, pandemia baten edo gerra batek areagotutako krisi ekonomiko eta sozial baten murgilduta egonda be. Bardin deutsue.

Ayer anunciaron ayudas directas al sector primario y algunas medidas fiscales y las damos por buenas, pero además de ser medidas provisionales, no resuelven el problema, no están a la altura de las circunstancias, no son suficientes para cubrir las necesidades actuales del sector primario y de esta sociedad.

Los problemas que hay aquí y ahora no los ha causado la guerra; la guerra los ha intensificado y la guerra los ha puesto de manifiesto. Igual que ocurrió durante la pandemia.

Aquí el sector primario tiene problemas estructurales, el sector del transporte tiene problemas estructurales, problemas estructurales en el problema que tenemos con la energía y los combustibles. Y necesitan medidas más allá de determinadas medidas fiscales provisionales para hacer frente como es debido a esta crisis.

Si en Bizkaia era necesario abordar la transformación del modelo energético, económico y social, ahora, debido a la invasión de Ucrania, se ha convertido en imprescindible.

Necesitamos medidas estructurales para proteger a los vizcaínos/as.

Eta horretarako, hain zuzen be, diagnostiko bat behar dogu; gure errealidade sozioekonomikoaren diagnostikoa, harago doana; Barne Produktu Gordinetik harago doana, hazten jarraitzen dau-eta, hazkundera moteldu egin dan arren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak egunotan esan deuskunaren arabera.

Gure ondoizatean eta, orokorrean, planetarean ondoizatean jasaten ari garan krisien gizarte- eta ingurumen-eraginak neurtzeko adierazleak behar doguz.

Eta horretarako badira adierazle batzuk, gizarte-aurrerapenaren indizea eta eskualdeko gizarte-aurrerapenaren indizea, esaterako, eta horreek janariaren, babesaren eta segurtasunaren oinarrizko preminei lotuta dagoz.

Aberastasunaren metaketaren adierazleak dagoz, baina horreek ez dira aztertzen gure zerga-sistemeari jagokonez.

Jatsi zaiteze lurrera, baina jatsi zaiteze hilkor guztion lurraldera, Bizkaia beharginaren lurraldera, haren bizkar geratzen da-eta beti-beti krisi guztien pisua (eta honena be bai).

Barne Produktu Gordina igoten ari dala dinoskuzue, bai, baina benetan zer gertatzen ari da bizkaitarren bizi-kalidadeagaz? Zelan jasaten ari gara elektrizidadearen prezio garestia? Zelan ari dira eroaten persona zaurgarrienak hori guztia, hau da, produktu oinarrizkoenen prezioen igoerea?

La brecha social está creciendo, la riqueza se va acumulando en manos de unos pocos. Eso tiene un nombre. A eso se le llama crisis social. La crisis social a la que nos enfrentamos.

Y para ello debemos adoptar diferentes medidas en distintos ámbitos: 1) de cara a la transición ecológica; 2) de cara a la soberanía alimentaria; 3) de cara a la distribución de la riqueza.

Danok dakigu krisi ekonomikoetatik urteteak desbardintasunak areagotzea ekarri dauena, eta, beraz, krisi baten ondoren, persona pobreenak gero eta pobreagoak dirana, eta aberatsenak, ostera, arabere aberatsagoak.

Eta horregaitik, jasaten ari garan krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko orduan, helburu nagusietako bat aberastasuna errotik birbanatzea da, eta ahalduen agerraldian ez zan horren aitamenik egin.

Recientemente, este Gobierno Foral valoraba de forma optimista los datos de recaudación de impuestos. Los ingresos aumentaban, sí, pero ¿cómo se recauda? ¿De dónde viene el crecimiento de esta recaudación? Eso es lo que realmente hay que valorar.

Y la respuesta representa una situación muy injusta, ya que la carga del aumento de estos ingresos recae sobre todo sobre las clases populares, mientras que las personas más ricas y las empresas con más beneficios no aportan de forma proporcional a las arcas públicas.

Los beneficios fiscales, las reducciones de cuotas, los incentivos, etc., son instrumentos que atacan el sistema impositivo progresivo y favorecen que quien más tiene no pague en la debida proporción a Hacienda. Y ahora, a esta forma de recaudar impuestos de forma poco equitativa se sumará un descenso notable de la recaudación.

Y todo esto sucederá cuando la subida de los precios de la electricidad y de los bienes básicos es cada vez mayor en las personas más vulnerables.

Diru-bilketea txikiagoa izango da inbersino publikoa eta gure lurraldeko sektore ahulenak babestea funtsezkoa izango dan uean.

Eta, halanda be, baten batek esango dau orain ez dala unea fiskalidaderedua gainbegiratzeko, batzuentzat ez da-eta inoiz une egokirik egongo hori gainbegiratzeko.

Eta guk dinogu, hain zuzen be, oraintxe dala unea eta preminazkoa dala fiskalidate askoz progresiboago eta askoz bidezkoago bati buruzko eztabaidea proponidutea.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Iardia Olangua. A continuación, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

Tira, garai txarrak dira. Munduko botere ekonomikoa dabenek barriro jarri dabe Strategoko taulea mahai gainean, eta partida barri bati ekitea erabagi dabe. Lehenengo osagaia, gerrea; izan be, beste batzuetan ez bezala, ez da gertatu herrialde arabiarretan. Oraingoan Ukrainan jazo da, European. Eta hemendik gure alkartasuna eta babesa helduarazo gura deutseguz gatatzka-egoeran eta gerra-egoeran bizi diran herri guztiei, eta hemendik be zentzuz jokatzeko eta herriek bakean biziteko daben eskubidea aldarrikatzeko deia egin gura dogu.

Strategoren partida horren bigarren osagaia. Izan be, partida on honetan ezin da falta, ba, baliabide energetikoen prezioak modu esponenzial eta iragankorrean haztea. Gaur egun, petrolioak ez ezik, gasaren prezioak eta lehengai askoren prezioak be gora egin dabe globalizazioari esker. Eta horregaz, tira, badaukagu ekosistema egokia, eta horri be gehitzen badeutsagu daukagun ekonomiaren suspertzea arriskuan dagoala, ba prest daukagu dana beste krisi ekonomiko baten sartzeko, eta barriro be jokalaririk aurreratuenek aprobetxauko dabe. Eta gainerakoei betikoa jagoku, hau da, burrukatzea eta euren mobimentuen ondorioei aurre egitea.

Eta hemen, Bizkaian hasi gara daborduko ondorio horreek barruntetan. Hornigaietarako arazoak daukaguz, gehiegizko globalizazioaren ondorioz, gure lurraldean industria-sarea larregi galdu dalako, behar doguna sortzen daben hirugarren herrialdeakazko mendekotasun handiegia dagoalako. Egiturazko arazo horri egiturazko erantzuna emon behar deutsagu. Eta, ondorioz, prezioen igoera iragankorra be jasaten ari gara, baina igoera hori gure mendekotasun energetikoaren eta oligopolio energetikoaren gehiegizko boterearen ondorio be bada. Beste egiturazko arazo bat, eta ez deutsagu erantzunik emoten.

Eta nork jasaten dau hori guztia? Bada, enpresak, etxeak, familiak, langileriak... Izan be, langileria bere erosteko ahalmena zelan murrizten ari dan ikusten ari da daborduko.

Eta ondorio horreen larritasuna, tira, hondino ikusteko dago, baina esan deutsuedan lez, ondorioak etxeko ekonomietan eta lurraldeko produktzio-sektorean igarten ari gara. Eta benetan, emoten dau azken 40 urteetan ez dogula ezer ikasi. Ez, ez dogu ezer aurreratu petrolio-ekoizleen kartel berak eragindako aurreko energia-krisia ezkeroztik. Bape ez. Egoera bera, ondorio berberak gure ekonomian, hau da, gure lurraldea ez dago prest.

Rementeria jauna, Elkarrekin Bizkaitik galdetu gura deutsugu zergaitik ez dagoan prest gure lurraldea Strategoko partida barri baten enbidoak jasateko. Beharbada ezin dozu geopolitikea kontrolau. Hori be ez deutsugu eskatzen, baina kontrolau zeinke gobernetan dozun lurraldean jazoten dana. Bazenkian hornidura-kateak hauskorak zirana. Hori ez da barria. Bazenkian, era berean, inportautako erregai fosilakazko mendekotasuna handiegia dana. Ez da gauza barria. Horreek egiturazko arazoak dira Elkarrekin Bizkaiaren ustez, eta erantzun egin behar jake. Gertatzen dana da, beharbada, horreek ez dirala izan zure gobernuaren lehentasunak azken urteotan, ezta zure alderdiarenak be azken hamarkadetan. Baina jakin gurako geunke ea orain gai horreek zure gobernuaren agendaren lehentasunen artean dagozan ala ez, etorkizunerako edo etorkizunean gure lurraldea hobeto pretauta egongo dala bermatzeko bi elementu dirala uste dogulako. Zer egingo dozu gure lurraldearen erresilientzia-gaitasuna handitzeko, gure errealdade sozioekonomikoa behin eta barriro ezegonkortzen daben krisi ekonomikoak, sanitarioak edo segurtasunekoak errepetiduten diranean? Horrek kezkatu egiten gaitu, eta horregaitik jakin gura dogu ze neurri hartuko dauzan gobernuak eta neurri horreek noraino helduko diran, hau da, ze eragin izango daben, nori eragingo deutsien...

Aldundiak herritar zaugarrienak eta enpresa-sarea babesteko neurriak jarri behar dauz martxan, epe laburreko neurriak, baina baita luzera begirako neurriak be. Bizkaiko gobernuak neurriak hartu leikez, eta epe luzeko neurriak izan daitezala borondate politiko kontua da.

Begira, krisi bat heltzen dan guztietan, gobernuak erabagiak hartzera behartuta dagoz, eta, beraz, zu be horrelan zagoz, eta, horren haritik, eskatzen deutsugu oraingo honetan ez daitela errepetidu pandemiaren kudeaketeagaz edo beste krisi batzuen kudeaketeagaz jazo dana.

Lehenengo eta behin, zeure erabagiak hartu daizazula eskatu gura deusugu, daukazuzan eskumenen arabera, jakina, Europak esaten dauenetik harago edo estaduko gobernuaren talka-planetik harago. Izan be, dakigunaren arabera, pandemian martxan jarritako gizarte-ekintza aktibauko dau barrero: lanpostuetan kaleratzerik eza, ABEEak, alogatzeen esku-hartzea, energiako bonuak eta, hain zuzen be, zaurgarrienak babesteko. Eta hemen, Bizkaian, benetan, autogobernuaren aldarrikapen handia, foraltasun handia, baina gaur egun daukagun gauza bakarra atzo bertan Gipuzkoako eta Arabako ahaldu nagusiakaz batera egindako iragarpena da. Besterik ezer be ez, iragarki bat.

Bigarrenik, eskatzen deusugu oraingo honetan martxan jarriko diran neurriak ez daitezala izan inbersore handientzako eta ondare dirudunentzako biztugarri fiskalak, pandemian jazo zan moduan. Oraingoan herritarren babesa areagotzeko neurrietan be pentsetako gai izango zaralakoan gagoz, jentearen eta beharginen erosteko ahalmenaren galerea eta pobretzea saihesten saiatuko diran neurrietan, hatan be. Oraingoan krisiaren kostuak modu orekatuan banatu behar dira, eta atzo iragarri zenduzan neurriek ez dabe behar dan moduan banatzen krisi honen kostua. Gasolioaren eta elektrizidadearen prezioaren igoereak eragindako gainkostua konpentsetea beharrezkoa al zan? Bai, Rementeria jauna, baina beste neurri batzukaz batera joan behar dau, ezipabere krisi honen kostu osoa persona berberei, hau da, herritar arruntei jagokelako.

Hirugarrenik, espero dogu erabagi horreek ez daitezala izan epe laburreko neurriak bakarrik, lehen esan deusudan lez, horretara ohituta gagoz-eta. Zure iragarkiak ildo horretatik doaz; neurri bakar bat be ez hona ekarri gaituen egiturazko arazoei aurre egiteko, hau da, mendekotasun energetikoa eta hornidurakazko mendekotasuna. Badakigu 4 urte irauten dauen legegintzaldi batetik harago pentsetea ez dana erraza, baina benetan hurrengo krisiari eusten deusdan lurralde bat gura badozu, hobe dozu zure agenda politikoaren lehentasun lez hartzea lurraldekoak, eta horreen artean ezin da falta Foru Aldundiak modu erabagigarrian inbertidutea trantsizino energetikoa gauzatzeko. Ezinbestekoa da autokontsumoa bultzatzen jarraitzea, baina ez bakarrik ordaindu leikienena, ezipabere gizarte-arrakalak eta desbardintasun sozialak sendotu egingo doguz-eta. Ezinbestekoa da ekoizpen-prozesuen eraldaketa energetikoari ekitea, baina sektore ekonomiko guztiena, eta hori benetan lehentasuna balitz gobernu honentzat, bultzada publiko irmeagaz egingo litzateke.

Hara, Rementeria jauna, gobernu honek, esaterako, Hegoaldeko saihebidia herrialde kontua dala erabagi dau, ezta? Lehentasunezko gaia. Proiektu horrek Bizkaira ekarriko leukezan milaka ontasunen barri emon deuskuzue eta horregaitik diru publikoagaz egiteko beharra defendiduten zenduen, bai? Izan be, kasu honetan ez jatzun bururutzen Hegoaldeko saihebidia ordaintzeko edo egiteko, eraikuntza-enpresei edo inbersore pribaduei Soziedadeen gaineko Zergan dirulaguntzak edo biztugarriak emonda egin ahal zani, ezta? Bada, aplikau eizu planteamentu bera. Ezin dozu herrialde kontua dan eraldaketa energetikoa sektore pribaduaren bizkar gainean itxi, biztugarri fiskalakaz eta dirulaguntzakaz suspertuta. Eta arabere gitxiago oligopolio energetikoa, Strategoren partida honetako jokalarrietako bat dana.

Laugarrenik eta azkenik. Kezkatu egiten gaitu zure gobernuaren erabagien ondorioz barrero be herritar arrunta, langileria eta persona zaurgarrienak krisia ordainduko dabenak izan daitezala. Nork ordainduko dau krisia, Rementeria jauna? Hori guztia azaldu behar deuskuzu. Ze neurri jarriko dozuz martxan herritarrakan eta produktino-sektorean daukazan ondorioak arintzeko? Krisiaren kostua modu orekatuan eta bidezkoan banatzeko neurririk hartuko al dozu?

Estaduko gobernuak, pandemian zehar, krisi ekonomikoak kudeatzeko orain arte erabili diran formuletatik aparte beste formula batzuk jarri dauz praktikan. Eskoiko gobernuak eta alderdiek beti modu berean kudeatzen dabez krisiak, neurri

zorrotzakaz, eta langileriari eskubideak murriztu egin deutesiez, negoziazio kolektiborako gaitasuna urratu eta langabezia hazi eragin dabe. Oraingoan, eraginkorrak izan diran beste neurri batzuk jarri dira abian. Benetan, gaur atzo iragarri zenduzanak baino neurri gehiago ekarriko dozuzalakoan nago eta enpleoa, beharginak eta familiak babesteko norabidean joan daitezala espero dot, eta, ahal dala, egiturazko arazoan gainean jardun daizula eta krisiaren kostuak guztien artean banatu daitezala.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días también a todos/as, a todos/as los/as junteros/as.

Y, bueno, yo también empezaré, pues, con una mención, ¿verdad?, porque me parece que es imprescindible. Y es cierto que Ucrania lleva en guerra ya un mes, por esa invasión, y que debemos ser conscientes de que están entre bombas y que es la humilde ciudadanía la que está sufriendo todo esto, ¿no?, y nuestra mirada y nuestros corazones están allí. Se está diciendo que ya hay 4 millones de personas refugiadas. 4 millones es sinceramente una cifra muy importante, a tener en cuenta.

Y que una persona origine esta situación..., son reflexiones internas, ¿eh?, pero que una única persona provoque una situación como esta, que ponga numerosas vidas, miles, millones de vidas de esa manera..., creo que todos y todas deberíamos hacer esa reflexión, en todo el mundo, ¿verdad?, que no podemos tolerar o dejar que una única persona o gobierno lleve a cabo tales acontecimientos. Ha puesto en la cuerda floja a todo el mundo. Por supuesto, sobre todo tenemos el problema en Ucrania, pero tenemos en todo el mundo numerosas personas migrantes, eso también lo tenemos que tener en cuenta, pero debemos darnos cuenta de que la violencia nunca trae consigo nada bueno, eso lo sabemos muy bien, la historia no puede repetirse de nuevo, y, bueno, que seamos conscientes todos/as, cada persona desde su casa y desde su país que debemos hacer esa reivindicación a nivel mundial y que es necesaria la paz.

Dicho esto, dicho todo esto, entraré en la interpelación. En la pregunta o en la interpelación que realizan ustedes en estos momentos señalan qué medidas adoptará la Diputación. Y es cierto, nuestra obligación consiste en adoptar medidas, adoptar medidas y hacerlas bien, hacerlo bien si es posible. Pero para todo ello, y alguien lo ha mencionado, es preciso realizar un diagnóstico correcto. Sin diagnóstico no podemos adoptar ninguna decisión, porque para que esas medidas sean válidas es imprescindible, como he señalado, realizar ese diagnóstico.

Y a la hora de hacerlo tenemos que analizar y debemos ser conscientes de otras dos cuestiones:

-Por una parte, quiénes somos, qué tipo de institución somos, qué podemos hacer.

-y de acuerdo a ese “qué podemos hacer”, qué tipo de competencias y capacidades tenemos para hacerlo. Qué es lo que está en nuestras manos, ¿verdad?

Diagnostikotik hasiko naz, ixten badeustazue. Bizkaian, lurraldean,

baina zabaldua dagoan zeozer dala uste dot, kaltetuen bi talde nagusi dagoz.

Batetik, gure industria eta sektore produktiboak dagoz. Sektore produktiboetan guztiak sartzen dodaz, autonomoak, ETEak eta enpresa handiak. Izan be, unada honetan danak jasaten ari dira gerrearen ondorioz sortu dan krisi global honen ondorioak.

Eta gero, orokorrean, gizartea dago, inflazioa erosteko ahalmen hori murrizten ari dala ikusten dauen gizartea, orokorrean.

Diagnostiko bat egokiagoa da errealidadeari lotuago zagozanean, arazo horreek jasaten ari dan jatorrizko sorburutik hurrago zagozanean.

Horregaitik, ahaldun nagusi moduan, gobernuko beste diputadu batzukaz batera, makina bat enpresa txiki, ertain, handi eta autonomo bisitau doguz azken egunotan, eta eurekaz egon gara, zuzenean, lehen eskutik, eurekaz batera mahaiian jesarrita, zer ikusten ari diran jakin daigun, zelan ikusten daben euren enpresetan, zelan ikusten daben euren inguruan, zertan lagundu ahal deutsegun. Lehen sektoreko ordezkariakaz be egon naz, abeltzainen, nekazarien, txakolinaren, basogintzearen eta sindikatuen alkarteakaz (EHNE falta zan). Egia da EHNE falta zana. Eta gerra aurretik be egoan talka-planen beharrari aurre egin deusagu, baina gerrea bera be kontuan hartuta.

Bisita horreen laburpena partekatuko dot zuokaz. Esan deuskuena. Bizkaiko enpresen eta autonomoen arazo nagusiak gai zehatz-zehatz eta sano jakinetan oinarritzen dira.

-Lehengaien eukieza eta kostuen igoerea.

-Energiaren eta erregaien kostuak handitzea.

-Hornidura-kateak apurtzea.

-Garraio-kostuen igoerea eta hornidurak jasoteko gaiztasuna, izan zan geldialdiagaitik eta hondino be garraioan dagoan lan-ixteagaitik.

-Fakturazinoaren jatsierea, jarduerak behera egin dauelako.

-Finantza-gastuen igoerea, proiektuen heltze-epea luzatzerakoan.

-Eta azken hau, sano orokorra, marjinen murrizketa handia, eta kasu askotan tarte horreek guztiz desagertzea be bai.

Esto es lo que nos han dicho, tanto las personas autónomas como las pequeñas empresas, microempresas y medianas y grandes empresas. Como ven, muchas de estas cuestiones quedan fuera de nuestra capacidad de iniciativa. Y no se trata de excusas, es así en muchas de las cuestiones que nos dicen. Nosotros no podemos fijar el precio de las materias primas. No es nuestra competencia. En cuanto a los carburantes, ayer mismo se adoptaron medidas a nivel estatal, porque la legislación está en sus manos, sobre todo en este sentido.

Halanda ze, diagnostikoa lehen eskutik ezagututa, preminazko eskaerak zeintzuk diran jakinda, Aldundi honek preminazko neurriak hartuko dauz. Eta bai, neurri baten iragarri genduzan.

Inflazioaren eragin ekonomiko negatiboa arintzen daben neurriak

dira. Bizkaitarrei ahalik eta gitxien eragiten saiatuko gara. Eta horretarako talka-neurriak dira, salbuesenezkoak eta iragankorrak. Barriro dinot, 2022. urtean iragankorrak dira. Neurriak lau eremutan izango dira.

Lehenengo eta behin, zerga-zorren ezohiko geroratzea, bermerik jarri barik eta berandutze-interesak sortu barik. Geroratzea persona autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek eskatu ahal izango dabe. Gitxi gorabehera 50 behargin arteko enpresak daukaguz berbabide. Apirilaren 1etik garagarrilaren 31ra bitartean aurkeztu eta borondatez ordaintzeko epea eben zerga-zorrei jagokenez aplikatu ahal izango da, eta salbuetsita dagoz Persona Fisikoen Errentearen gaineko Zergearen, Ondarearen gaineko Zergearen eta Soziedadeen gaineko Zergearen kanpainak. Hori ez da sartzen.

Geroratutako zorren ordainketea hiru hilebetez etengo da, borondatezko aldia amaitzen danetik kontetan hasita, eta ordainketea gero egin beharko da hilean zenbateko bereko 6 kuotatan zatituta.

Bigarrenik, Persona Fisikoen Errentearen gaineko zergearen eremua. 2022ko lehenengo bi hiruhilekoei (sei hilebete) jagokezan ordainketa zatikatuak salbuetsiko doguz, jarduera ekonomiko horreek garatzen dabezan persona fisikoenak, guztienak.

Además, hemos acordado también modificar los porcentajes en los ingresos con estimación directa, tanto por amortizaciones como por pérdidas de difícil justificación, y lo hemos incrementado.

Con carácter general para cualquier actividad, hemos pasado del actual 10% al 15%.

En Agricultura y Ganadería, el 70% (en la actualidad está en el 35%).

70% en la actividad de transporte de mercancías por carretera (actualmente está en el 55%).

Y en el sector pesquero no cambia porque actualmente está por encima del 90%.

Como tercera medida, en el Impuesto de Sociedades: en el caso de empresas muy pequeñas, incrementamos del 10% al 15% las deducciones de gasto compensables por dificultades derivadas de su tamaño.

Azkenik, lehen sektoreari jagokonez daukagun eskumenaren esparruan, Foru Aldundiak zuzeneko laguntza sorta bat abiarazoko dau, ekoizle txiki bakotzak (abeltzainak..., tira, dagozan azpisektore guztiak) batez beste 3.200 euro inguru izan daizan ustiategi bakotzeko. Batez bestekoa dala dinot. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren programea da, eta 1.250.000 eurora helduko da.

Tira, ikusten dozue jardun geinken tokian jarduten ari garala.

Neurri horreek eragina izango dabe foru-kutxetan, bai. Aurten Bizkaiko ekonomian 108 milioi euro inguru sartuko doguz hartzen ari garan neurriakaz, hori da aurreikuspena.

Eta gure aurreikuspenen arabera, ia 31 milioi euro gitxiagoko diru-bilketea izango dogu horregaitik bakarrik, zuzeneko zergapetzearen alde horregaitik.

Baina guk onartu egiten dogu hori. Ontzat emoten dogu, milioi

horreek, hain zuzen be, orain egon behar daben lekuetan egongo diralako, persona autonomoen, enpresa txikien, ETEen eskuetan.

Halanda be, adi-adi egon behar gara beste neurri batzukaz be, gure esku ez dagozan arren garrantzitsuak diralako. Garrantzitsuak dira, eta logikoa dan moduan, elektrizidadearen eta hidrokarburoen prezioan hartu diran erabagiez ari naz. Atzo hartu ziran erabagiak.

Guk ez geunkan horretarako gaitasunik. Dakizuenez, zergen arloan be ez geunkan eta ez daukagu gaitasunik, nahi-ta beti eskatzen dogun eskumen hori. Edozein forok balio deusku BEZaren zeharkako ezarpenean eskumen hori eskatzeko; izan be, gaitasun hori bagendu, gure erantzuna be askoz be berehalakoagoa izan leiteke, logikoa dan lez.

Espainiako Gobernuak Kontseiluan hainbat erabagi hartzea zehaztu dau, eta horreek be eragin egingo deuskue, dinodan lez, eta erabagi askogaz dauka zerikusia, baina eragina daukienak eta gure kudeaketea daukienak banatzen saiatuko gara.

Eragina dauka, esaterako, enpresa elektro-intensiboen sarbide- eta banaketa-bidesariak murrizteak. Egia da sano modu positiboan ikusten doguna, nahi-ta diru hori enpresa elektrikoei konpentsauko jaken, datorren urteko Aurrekontuen Legearen kontura.

Jarduketa horrek foru-kutxetan BEZ gitxiago biltzea be ekarriko dau.

Baina barriro dinot, positiboa dala uste dogu, danok lagundu behar dogulako. Guk be bai.

Era berean, 2022ko bagilaren 30era arte luzatu dira apirilaren 30era arte indarrean egozan neurriak, hau da, elektrizidadean BEZa %21etik %10era murrizteko neurriak. Era berean, lehen sei hilekoan, lehenengo sei hilebeteetan energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa kendu eta elektrizidadearen zergea %0,5era murriztuko da. Halanda ze, neurri horreek be foru-eremuan sartu beharko doguz. Aurreko aldian be egin genduan, eta horrek be eragina izango dau gure diru-bilketan, bai BEZaren eta bai zerga berezia ezartearen diru-bilketea, jakina. Baina uste dot positiboa dala, modu positiboan baloretan dogu, hor egon behar garalako eta lagundu egin behar dogulako.

Eta, azkenik, gasolinen edo hidrokarburoen prezioa jasteko asmoz Madrilek onartutako beste neurri bat be aitatu gura neuke.

Dakizuenez, erregai-litro bakoitzeko 15 zentimoko hobaria izango dau apirilaren 1etik bagilaren 30era, baina kontsumitzaile guztientzat izango da, ez bakarrik garraiolarientzat. Eta horri banatzaileak jarri leikezan 5 zentimo edo gehiago gehitu behar deusaguz.

Tira, hobari hori deskontu zuzen lez egiten da gasolindegietan, eta, beraz, gero eurek eskatu beharko dabe egingo daben hobaria itzultzeko.

Itzulketea eskatzeko modua gaur egun hidrokarburoen zergan gasolio profesionalagaz egiten dan moduan egingo da. Izan be, desbardintasuna da garraiolariak eskatu beharrean (hondino itzulketa hori apliketan jake-eta) gasolindegia berak eskatuko dauela. Bizkaian gitxi gorabehera 115 gasolindegi dagoz.

Halanda ze, hidrokarburoen zergaren itzulketak foru-ogasunok egiten doguz.

Itzulketa horreek antolatzeke modua euskal erakundeoi egokituko jaku. Pentsetan ari gara zelan egin, hau da, aurreratu eta gero eskaera horreek guztiak izapidetzea, eta Madrilen erakundeakaz be hori izan dogu berbabide, eta hemen foru-ogasunak, Eusko Jaurilaritzeagaz batera alkarlanean arituko gara. Hori da jagokuna eta uste dot egin behar dogula. Beraz, zentzun horretan, modu positiboan ikusten dogu.

Era berean, barriro dinot, azken neurri hori positiboa izan arren, persona guztiei eragiten deuselako eta ez kolektibo jakin bati, uste genduan beste modu batzuetan aplikau ahal zala. Berbarako, gastuaren bidetik hobariak emoteko konponbidea BEZaren murrizketeagaz egin ahal zan, elektrizidadean egin zan lez, %21etik %10era murriztuta; izan be, gasolinean be BEZaren murrizketea %21etik %10era ezarri ahal zan, eta ondoren hobari espezifikoa egin ahal izango jaken errepideko garraioaren sektoreei, lehen sektoreko sektoreei, baina hobari espezifikoak, une honetan gasolio profesionalaren edo landa-eremuko gasolioaren bidez egiten ari dan moduan.

Hori guztia hiru hilebeterako egingo da. BEZaren murrizketearen kasuan, 16 zentimoko murrizketea ekarriko eban, eta, beraz, konponbide berberetara helduko ginan. Baina danok aritu gara helburu bera lortzeko lanean. Egia esan, erabagiak hartzeko gaitasuna ez daukagu guk hemen. Dakizuenez, Ministroen Kontseiluak dauka, Errege Lege-dekretuaren bidez, eta, gero, baliozkotu egin beharko da, halan bada, Diputaduen Kongresuan.

Barriro dinot, erabagiak ondo etorriak dira. Une honetan ez daukagu neurri horreek foru-kutxetan daben eraginaren kuantifikazinerik, baina erakunde guztiei jagoku jardutea.

Laguntza horreek lehen sektoreari be ezarriko deusaguz, eta lehenbailehen ezarriko doguz. Gure asmoa datorren apirilean abiarazotea da, ahal dala apirilaren 5ean erabagiak hartzea eta Madrildik datorren guztia inplementetea, lehenbailehen, hori be apirilean bertan.

Neurriak aitatzen doguzanean ezin doguz ezelan be ahaztu gehien behar dauenari laguntzeari jagokozan neurriak be. Eta kasu honetan errefuxiatuak aitatzen dodaz, batez be une honetan gerra-eremutik datozenak, baina, eta barriro dinot, gainerako migratzaileak be ahaztu barik.

Joan dan martiaren 7tik hona, euskal erakundeak koordinauta lanean ari gara preminazkoenari erantzuteko. Momentuz gerra-eremutik, Ukrainako gerra-eremutik etorritako 204 persona dagoz baliabide publikoetan babestuta, eta barriro dinot, Bizkaitik eskuragarri dagozan baliabide publikoak dira. Une honetan 430 plaza inguru daukaguz erabilgarri. Baliabide publikoak. Horrezaz gainera:

-Psikologoen alkargoagaz hitzarmena aktibauta daukagu, persona horreei guztiei eta partikularren harrera-etxebizitzetan dagozanei zerbitzua emon ahal izateko. Herri honek beste behin erakutsi dauen alkartasuna be eskertu gura dot.

-Umeen Zerbitzuan talde espezifikoa bat aktibau da gerra-eremutik etorri diran edadebakoak artatzeko.

-15 plazako baliabide bat dago familia-erreferentzia barik heltzen diran edadebakoentzat, behar bezala artatuak izan daitezcan.

-Talde espezifikoa bat daukagu mendekotasun-balorazinoak egiteko, arretea espezializaua behar izan ezkeru.

-Eta Aldundi honek Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura, eta CEAR eta Gurutze Gorriaren zerbitzura 100 bizikidetzeta-unidadarentzako plazak jarri dauz, eta horreetako batzuk daborduko erabilten ari dira.

Bueno, pues, esto es lo que tenía que manifestar de momento. Me he extendido en el tiempo, perdónenme, pero al fin y al cabo tenemos que tener en cuenta una cosa. La situación es coyuntural. Veamos hasta qué punto se convierte en estructural, esperemos que no ocurra, pero algo sí que es necesario a corto plazo, y es que finalice la guerra de Ucrania. Que estén de nuevo en paz y, sobre todo, que las personas de allí tengan una calidad para vivir allí. Libres, libres y sin ningún problema.

Continuaremos. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. En el turno de réplicas, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ayer comentaba usted que habían aprendido de la crisis de la pandemia. Pues nosotros/as pensamos que no. Creemos que no, porque estos tiempos crueles, duros requieren de un trabajo en común. Porque para hacer frente a una crisis como esta debemos estar preparados/as con anterioridad, el diagnóstico debe estar realizado para soportar cuando llegan situaciones como esta.

Hoy, el Gobierno Foral de Bizkaia... Las medidas de las que nos ha informado hoy el Diputado, bueno, todas han sido las que se dieron cuenta ayer, excepto aquellas que se han adoptado a nivel estatal. Ustedes no han aprendido nada de la pandemia. Voy a repetir hoy también lo que tantas veces hemos manifestado. ¿Qué clase de respeto institucional es este? ¿Qué respeto nos tienen a los y las representantes de los y las vizcaínas que estamos aquí? Una vez más, una vez más, nos enteramos por la prensa de las medidas que va a adoptar este Gobierno Foral.

Las medidas que han presentado, esas medidas las damos por buenas, también lo he dicho antes. ¿Serán beneficiosas? Sí. Y ¿son necesarias en estos momentos para numerosos sectores? Sí. Ahora bien, ¿son suficientes? No, de ninguna manera. ¿Llegan a tiempo? Tampoco. Hoy, aquí, señor Rementería, no ha dicho ni tan siquiera una medida, ni tan siquiera una, en relación a las medidas para proteger a las personas y a las familias.

Queremos poner a las personas en el centro. Pero pongamos a las personas en el centro.

Esas medidas que ustedes han planteado supondrán un descenso importante en la recaudación, en un momento en el que la inversión pública y la protección de los sectores más vulnerables de la situación es fundamental, tal y como he dicho antes. En este sentido, además de las medidas transitorias urgentes también deberían adoptarse medidas profundas para que afectaran en la protección social y en la inversión pública, y lanzaré aquí algunas de nuestras propuestas para hacer frente a ello: el trato igualitario de las rentas de trabajo y de capital en el impuesto IRPF; en el Impuesto de Sociedades establecer como tipo eficiente sobre los rendimientos del 15%; que se establezca el impuesto de grandes bienes; que se intensifique la lucha contra la elusión fiscal... A ver,

señor Rementeria Maiz, aquí necesitamos un amplio plan de choque para estructurar una gran protección social, económica y laboral para la población vizcaína. Para poder hacer frente a lo que está ocurriendo y a lo que, seguramente, puede suceder. Creamos una comisión de colaboración, una comisión de colaboración para realizar un diagnóstico completo que he mencionado en mi anterior intervención en el ámbito de nuestras competencias, de nuestras competencias y en esta dirección, para poder debatir en relación a las medidas que haya que adoptar.

En las últimas horas hemos sabido que el lehendakari Urkullu ha hecho un llamamiento a todos los grupos políticos. Ha convocado, bueno, no sé, una comisión en el sentido en el que teóricamente estamos pidiendo ahora, o ha anunciado algo similar. Bienvenido sea. Bienvenido sea. ¿Piensa hacer algún anuncio en este sentido?

Hagamos un diagnóstico real y profundo para que no nos pille desprevenidos/as una próxima crisis. Que una próxima crisis no coja a nadie desprevenido/a. Hagámoslo entre todos y todas. Hagámoslo entre todos y todas. Reflexionar, debatir y adoptar medidas adecuadas a la magnitud de los problemas. Precisamos de un acuerdo popular. En Bizkaia necesitamos un acuerdo popular.

Eta zerari jagokonez... Amaitzera noa. Gaur hemen aitatu dozun gaitasun faltetari jagokonez, hemengo arazoetarako erabagiak hemen hartzeko gaitasun faltetari jagokonez, hemengooi eragiten deuskuen arazoetarako, zer behar dogun, Rementeria jauna? Bada, aspalditik aldarrikatzen ari garana, burujaubetasuna.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Ilardia Olangua. También en el turno de réplicas, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Rementeria jauna. “Hasteko, diagnostiko zuzena egin behar da” esan dozu. Ondo, diagnostiko zuzena egin behar da, baina ez ondorioena bakarrik, ezpada jatorriena be bai. “Ondorio horreen inguruko diagnostiko zuzena egingo dot, eta, gainera, gai horreetan jarduteko gaitasuna euki neike edo ez” esan dozu. Eta, gainera, sano diagnostiko bitxia egin dozu, honako hau esan dozu-eta: “sektore bi dagoz, eta horreek dira kaltetuenak: industria, enpresak, eta gizartea”. “Hurrekoa izan naz, hurreratu egin naz, entzun deutset, eta neurri egokiak dakardaz eragin koiuntural horreetarako”, salbuespenezko neurriak eta iragankorrak dirala aitatu dozu. Eta gizartearentzat, sektore kaltetuenetako bigarrena dana? Ezer be ez? Horreentzako ez dakargu inongo neurrik? Horreekana hurreratu be ez zara egiten, ez deutsezue entzuten, ezta?

Eta zer gertatzen da egungo egoera abiarazoten daben errazoiei buruz behar dan diagnostiko zuzenagaz? Horren inguruan ez jatzu diagnostiko zuzen bat egitea interesetan, ala 4 hamarkada gehiago behar dozuz diagnostikoaren ondiora heltzeko, hau da, mendekotasun energetiko larregi daukagula eta hornidurakaz mendekotasun larregi? Izan be, hori da behar izaten ari garan denporea, 4 hamarkada. Egoera bera, 4 hamarkada beranduago, ondorio berak, eta hemen ez dogu ezer egin. Ondo dago, salbuespenezko neurriak eta neurri iragankorrak eragin koiunturatarako, salbuespenezkoak eta iragankorrak, baina jatorrietarako, egiturazkoa danerako? Horretarako ez dakigu.

Gaur atzo beste ahaldun nagusiakaz iragarri zenduzan neurriak dakarskuzuz. Neurri gehiago daukazuzala dinozu, baina publizidade osterako ixten dozuz. Gaur arrastirako, ezta?, Lehendakaritzan. Eta Ganbera honi errespetua hemen? Zertarako gagoz hemen? Itauna Ganbera honetako bi taldek egiten deutsue, ez? Herritarrak ordeztan doguz. Ondo legoke beste neurri horreen inguruan be berba egitea, ez? Eta, antza danez, hori boltsikoan ostentzen ari zara. Jakitea interesetan jaku eta gaur, zuzenean, hemen ebaluetea gustauko litxakigu. 16:00ak arte itxaron behar dogu? Benetan, aurrekari bako errespetu faltea erexten deusat.

Eta bestetik, zera dinozu “ez, ez daukat-eta gaitasunik, ezin dot ezer egin. Hartzen ari garan neurriek daukadazan eskumenakaz zerikusia daukie”. Ondo. Hasieratik esan deutsugu; ez deutsugu eskatuko eskumenik ez daukazun gaien inguruan erabagirik hartzeko. Baina gobernu honek, daukazan eskumenakaz, egiturazko egoeran eragin lei. Jardun daiteke.

Hara, arazoetako bat kanpoko neurribako hornidura-mendekotasuna dala esan deutsugu. Zer moduz berrindustrializazino-plana, esaterako? Zelan babestuko dozu enpleoa? Ondo dago kaltetutako sektoreetarako biztugarriakaz. Ondo, txalotu egiten dogu, ez deutsugu esango txarto dagoanik, baina gehiago egin zeinke. Ez itxi enpresak deskapitalizetan, esaterako. Neurri fiskalak hartu zeinkez hori jazo ez daiten, egungo egoera gatxean enpresa horreek deskapitalizau ez daitezana. Fiskalidatearen beraren bidez egin zeinke. Egizu. Ez itxi dibidenduak eta etekinak banatzen. Ez eizu itxi exekutiboen soldaten igoerarik egon daiten, ez?

Zelan bermatuko dozu, zeozelan, aurtan barriztetako geratzen diran sektoreetako hitzarmen guztietan soldatak ez daitezala izoztu eta Bizkaiko beharginen ia %75en soldatak hohera joan daitezala? Nire ustez, egin zeinkez gauzak.

Zer egingo dozu neurribako mendekotasun energetikoan jarduteko? Ezer be ez? Ezta neurri bat be. Ze inbersino egingo dozue trantsizino energetikoa bultzatzeko? Zelan beteko dogu deskarbonizazinoaren helburua? Zelan? Neurri bakar bat be ez. Hori da egiturazko gaietan jardutea. Energia barriztagarriak garatu leitekez, industria-sektorearen eraldaketan inbertidu geinke. Egin leiteke, bai. Zer gertatzen da ekonomia zirkularreko gure proiektuakaz? Non geratu dira?

Eta erantzun ez deustazun beste kontu bat da krisi honen kostuaren banaketa bidezkoa zelan egingo dozun. Zera dinoskuzu: “ez dakit zein eragin izango dauen diru-kutxa publikoetan”. Osterantzeko neurri fiskalik hartuko dozu datorren aurrekontuan zerbitzu publikoak bermatu ahal izan daitezana? Edo barrero be beharginok eta herritarrok bakarrik ordainduko dogu krisi hau?

Askoz gehiago espero neban zure agerralditik. Zure bigarren zatian, ba, behintzat hurrengo neurriek nondik nora joko daben erakutsiko dozulakoan nago.

Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplicas, señor Diputado General, tiene usted la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

A ver si soy capaz de mostrar las ideas de forma ordenada. Miren, yo entiendo la labor de la oposición. Siempre digo lo mismo. Reconozco que ustedes tienen la obligación de manifestar este tipo de palabras, a pesar de que, bueno, luego desconozco si las creen todas o no, pero están en su obligación.

No comparto esa sobreactuación que realizan. “Ustedes tienen más capacidad, ustedes pueden hacer más...”. Verán...

Bi alderdi politikoetatik ikusi dodana betikoa eta bat da. Hau da, zuok be Covid krisian esan zenduena *kopiau eta itsatsi* dozue. Osasun-krisia zan, tira, krisi koiunturala zan be bai, zorionez, eta bi urte iraun dauela ikusten ari gara; urte bi be bada koiunturea. Orain krisi-egoeran gagoz, lehendik be baetorren inflazino handi baten ondorioz, baina baita Europako gerrearen ondorioz be. Baina zuok be ez zarie aldatu.

Usted me decía: “no han aprendido nada”. Pero ustedes tampoco. Ustedes nada.

Jakina, zuek hemen emoten dozuen konponbide bakarra betikoa eta bat da. Eta esango deusuet zein dan, neu be egon naz-eta pentsetan, “tira, beharbada konponbideren bat emongo deuskue”, eta idea bat neukan buruan, hau da, arazoa konpontzera etorri leiteken ekarpenen bat egin ezkerro, eta tribunan sortu ezkerro, tira, saiatuko ginala. Eta badinotsuet be bizi dogun egoera koiunturalean ona dan idearen baten pentsetan ari bazarie, gu idea horreek guztiak biltzen saiatzen ari garala, jakina, aztertzen, beste ogasunakaz batera aztertzen eta, posible izan ezkerro, martxan jarten. Baina, jakina, nik hemen ikusi dodan urtenbidea betikoa eta bat da.

Y es modificar el sistema fiscal. Modificar el sistema fiscal. Decían lo mismo con el Covid y dicen lo mismo aquí.

Pues, verán, esa modificación fiscal, transformar completamente la tributación fiscal en este sistema coyuntural no es posible. No es posible. Y, además, todas esas modificaciones a realizar no entrarían en vigor hoy. Debemos ser también conscientes de ello. Por lo tanto, esas soluciones mágicas que ustedes plantean, esas soluciones mágicas que lanzan ustedes, no son soluciones. No son una solución. Fracasan en eso, una y otra vez. Lo hicieron en la crisis del Covid, porque tuvimos en consideración algunas de aquellas medidas expuestas, pero en todo eso de modificar la fiscalidad siempre, modificar la estructura, modificar todo, porque hay que modificar todo de arriba abajo, ahí ustedes fracasan.

De Madariaga andrea, zera esan dozu “ez, zuon esku daukazue, bai, jakina; izan be, mendekotasun energetikoa, horniduren mendekotasuna...”. Zuk uste dozu Bizkaiko Foru Aldundiak konponduko dauela Europak, munduak daukan mendekotasun energetikoa? Baina, zegaz zatortaz?

Pero, por favor, ¿qué dicen ustedes aquí? Seamos conscientes. Como institución vasca la Diputación tiene puestas en marcha las transiciones que están en nuestras manos, tanto desde el punto de vista fiscal como desde el punto de vista de gasto. Y pensábamos más allá que otros/as, porque en esta tribuna la Diputación estaba trabajando en las transiciones mucho antes de que llegara cualquier Covid. Estaba trabajando en las transiciones. Desconozco qué estaban haciendo ustedes, pero nosotros/as estábamos inmersos/as en las transiciones. Y entre otras, estaba la transición energética. Y claro que hay que hacerlo con el sector, porque el sector supone en este momento un montón de producto bruto, supone mucho trabajo, y no podemos marginar al sector, debemos hacer frente en la transición en colaboración con el sector.

Baina ez eidazu esan Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagoanik, ez dakit, lurralde osoak, Europak eta mendekotasun energetikoa sortzen dabean krisiek dabezan arazoak konpontzea. Mundu guztiak daukaz energiari jagokonez hornidura berberak, danok. Eta gu ahal dogun neurrian ari gara horri aurre egiten.

Jakina, zera dinostazu “zuen esku dago enpresak deskapitalizetea, enpresek ahal izatea, zuen esku dago zuzendariak diru gehiago ez kobretea, zuen esku dago...”. Tira, horreetan, guk? Guk enpresa bati zer egin behar dauen esateko gaitasuna al dogu? Zertaz ari zara? Baina, mesedez, zelan esan zeinke hori tribuna honetan?

Jakin daigun non gagozan, jakin daigun ze gaitasun daukagun, hemen ez dau-eta edozein gauza esateak balio. Mesedez.

Seamos responsables.

Hau da, guk Europako esparru osoa gainditu eta enpresa bati zer egin behar dauen esateko gaitasuna daukagula? Ez, begira, guk gaitasun fiskala daukagu, eta biztugarri batzuk daukaguz enpresentzat, hain zuzen be, deskapitalizazioak saihesteko eta euren enpresetan inbertidu ahal izateko. Etekin horreek euren aktibo propioen sustapenean, enpleoaren hobekuntzan eta abarretan bideratzen dabez, eta horreek dira emoten doguzan biztugarriak, baina zuok ez zagoze horren alde. Ez zagoze. Ez zagoze inoiz Soziedadeen Zergearen alde, esaterako. Halanda ze, hor hipokresia bat dago, ezta?

Decían ustedes: “ez, baina zer neurri dago personentzat, kaleko personentzat, ze neurri dago?”. Hara, ba, begira, aitatu doguzanak. Izan be, guri..., hain zuzen be, energia-prezioaren jatsierea ezarriko dogu. Inflazioa sortzen ari dan gaitako bat energiaren, gasaren, elektrizidadearen eta erregaien prezioa da. Eta neurriak ez dira hemen hartzen, hartzen diran lekuetan hartzen dira, eurek daukielako hartzeko gaitasuna. Guk gustura inplementau gura doguz. Esan dot. Horreek dira herritarrakana doazan neurriak. Horreexek, hain zuzen be.

Jakina, zerga-ikuspegitik egiteko badinostazu, zer proponiduten ari zarie? PFEZa jastea? Hori al da proponidu deustazuena? Ezetz uste dot, baina hori da esaten ari zariena. Zelan lagundu ahal jake personei ikuspegi fiskaletik? PFEZa jasten. Zerga aldetik hori egingo da jenteari lagundu ahal izateko, dirua euren esku geratu daiten, baina zuok ez dozue hori gura, ezta?

Hara, nik zera dinotsut, egoera koiuntural baten neurri drastikoak, zorrotzak hartzea, egoera koiuntural baten egiturazko neurriak hartzea ondo pentsau behar dala, eta ikusi egin behar da hau koiunturala dan ala estrukturala dan. Eta hori datoza hilebeteetan ikusiko dogu. Eta hemen neurri espezifikoak hartzen ari gara sektore osoari laguntzeko, persona guztiei. Ez enpresei bakarrik, ezpada langileari be, persona guztiei. Hori da Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dauena.

Eta inbersinoei jagokenez, ez daukagu inongo trabarik. Aurre egiten ari garan 4 trantsizinoetarako onak diran inbersino guztiak egingo doguz, eta gaur egingo diranak, bihar egingo diranak eta atzo Foru Aldundia egiten ebilzanak. Gaur ez dogu aurreikusten inongo inbersinorik murriztea edo gitxitzea, inbersino horreek egitea guztiz funtsezkoa iruditzen jakulako.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General.

El punto cuarto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**

jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000613](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: Las Unidades Convivenciales de las residencias de personas mayores.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000613](#))

Expediente: ([11/B/18/0003289](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000613SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Adineko egoitzetako Bizikidetz Unitateak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000613SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003289](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Duque Santacoloma, tiene usted la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buenos días a todos/as.

Bueno, el pasado 31 de agosto se publicó el Decreto Foral, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la articulación de unidades convivenciales en la provisión del servicio foral residencial para personas mayores en situación de dependencia. Eso en cuanto al decreto foral.

Y por su parte, el Departamento de Acción Social publicó en julio de 2021 la convocatoria para concertar la prestación del servicio residencial foral para personas en situación de dependencia en residencias de Bizkaia (esa convocatoria era de 2021-2023).

Y en dicha convocatoria se preveía ofertar 500 plazas de unidades convivenciales a partir del 1 de marzo de 2022 en ese nuevo modelo, ¿no es así? Ofertar 500 plazas en unidades convivenciales.

2022ko martirako, aurtengo martirako, egoitza-plazak ituntzeko deialdiaren barruan, Aldundiak bultzatu dauen egoitza-eredu barri horretan 500 plaza eskainiko zirala estimau zan, egoitzetako bizikidetz-unidadeak, ezta? Tira, badaukagu dokumentazino hori; badaukagu 2020, 2021 eta 2022. urteetarako egoitza-plaza barriak modalidade desbardinetan ituntzeko egiten zan zerrendea.

Hori da aurtengo egiten zan proiektzinoa, eta, beraz, gure ustez, martiaren amaieran gagozan ezker, daborduko martxan egongo dira egoitza-eredu barri horretan dagozan 500 plaza horreek. Hori da diputaduari gaur egiten deusagun galderetako bat. Eta kalkuluen arabera, 2023rako ia bikoiztu egingo ei dira plaza horreek egoitza-eredu barri horretan.

¿No es así? La estimación, el reto para cuando lleguemos a ese año

2023 es que en este nuevo modelo haya 1.200 plazas.

No es la primera vez que tratamos este tema en las comisiones y también en esta Cámara, en los plenos... Y en una comisión...

Hain zuzen be, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputaduak garagarrilean egindako agerraldian, ba bertan, agerraldi haretan diputaduak adierazo eban estrategia horren bidez beste aurrerapausu bat emon gura dala arretearen personalizazioan, personen behar, itxaropen eta lehentasunen bilakaerari erantzuna emoteko.

Por lo tanto, el objetivo es claro. El objetivo es la atención personalizada.

Egun haretan, diputaduak adierazo eban garrantzitsua dala bizikidetza-unidade horreek antolatzea, baina arabere garrantzitsuagoa dala unidade horreen barruan gertatzen dana.

Bizikidetza-unidade horreek arautzen dauzan dekretua batez be bost ardatzetan banatzen da:

-Arreta- eta bizi- plan personalizaua.

-Eguneroko bizi- esanguratsua.

-Hartu-emonen eta erreferentziako profesionalen ikuspegia.

-Bizikidetza-unidade horren antolaketa eta kudeaketa.

-Eta bizikidetza-unidade barri horreen arkitekturea eta giroa, ezta?

Batzorde haretan guk, ba, eredu horren inguruko kezka eta zalantza batzuk azaldu genduzan, ez horrenbeste dekretuaren filosofiari buruz, esan genduan lez neurri handi baten ados gengo zalako, ezpada ezarriko zan moduari buruz, zelan jarriko zan martxan bizikidetza-eredu barri hori, eta, ba, bertan adierazo genduzan geunkazan zalantzetako batzuk.

Orduan geunkan zalantza nagusia ratioen ingurukoa zan, hau da, personearen beharretan eta personeagan oinarritutako egoitza-eredu barri hori zelan ezarriko zan, ratio berberei eutsi ezker.

Izan be, senak dinosku, esaten euskun eta jarraitzen deusku esaten personeagan oinarritutako zuzeneko arreta etxeko giroaren antzekoa izan gura dauen egoitza-eredua dala, hau da, persona horreek, egoiliar horreek etxean lez zainduak, artatuak izan daitezala, etxean lez sentidu daitezala. Eta uste dot senak guztioi dinoskula, edadeko persona bat etxean lez sentiduarazoteko giza baliabide gehiago behar doguzala. Behargin gehiago.

Gure ustez, ezin da horrelango zerbitzurik eskaini, zerbitzu personalizaua, personeagan oinarrituta, orain arte izan diran ratio berberakaz.

